

KORONABIRUSA ETA HONDAKINEN KUDEAKETA

Erabili 3 poltsa



Pazientearen hondakinak, gaixoak erabiltzen duen erabili eta botatzeko materiala barne (eskularruak, zapiak, maskarak), plastikozko poltsa batean (1. POLTSA) bota behar dira, gelan dagoen zabor-ontzi batean. Ahal dela, zabor-ontziak tapa eta irekitzeko pedala izango ditu. Ez da birziklatzeko inolako bereizketarik egin behar.



Plastikozko poltsa (1. POLTSA) behar bezala itxi eta bigarren zabor-poltsa batean (2. POLTSA) sartu behar da, gelaren irteeraren ondoan. Itxita dagoen poltsa horretaz gain, zaintzaileak erabilitako eskularruak eta maskara sartu behar dira eta gelatik irten aurretik behar bezala itxi behar da 2. POLTSA.



2. POLTSA, aurretik esandako hondakinak gordetzen dituen, 3. POLTSA batean sartuko da, etxeko gainontzeko hondakinekin batera. 3. POLTSA ere behar bezala itxiko da. Berehala, eskuen higiene osoa egingo da, ur eta xaboiarekin, gutxienez 40-60 segunduz.



Berehala, eskuen higiene osoa egingo da, ur eta xaboiarekin, gutxienez 40-60 segunduz.

3. POLTSA errefusarentzako edukiontzian (tapa grisa) edo udalerrian errefusa batzeko ezarritako beste edozein sistematan baino ezingo da bota. Guztiz debekatuta dago gainontzeko hondakinak modu berezian batzeko edukiontzietan (organikoa, papera, beira edo oihalak) botatzea edo inguruan botata uztea.

